


# Barazkiak eta loreak

## Eskolan egiteko ariketak





## Bisita egin baino lehen

### Hiztegia lantzen

Hemen dauzkazu landareen munduarekin erlazionaturako hitz ezberdinak. Bila itzazu gurutzegraman...


1. Landareak hortik sortzen dira.
2. Ongarri gisa erabiltzen dena.
3. Barazkiak edo loreak beren berezko garaitik edota klimatik kanpo landatu eta hazteko leku egokia.
4. Landareei ura botatzea.
5. Landareei edota zuhaitzei zatiak moztea

			2.									
			S									
1.	H	A	Z	I	A							
			M									
			A									
						4.						
						U						
						R						
5.	I	N	A	U	S	K	E	T	A			
			R				Z					
			R				T					
			A				A					
							T					
			3.	N	E	G	U	T	E	G	I	A



## Landareak behatuz

Erraza izango zaizu beheko marrazkian, zati bakoitzaren izena eta definizioa elkartzea...ea huts egiterik ez duzun.



Berdeak dira eguzki argia jasotzen dute eta honi esker behar dituzten elikagaiak osatu.

2

Lorea

1

Landarea eutsi, gure hezurren gisa eta barrutik gure zainen antzera sustraiak xurgatutakoa hostoetara garraiatzen dute.

5

Hostoa

2

Lur azpian egoten dira gehienetan, bertatik elikagaiak eta ura xurgatzen dute eta lurrean finkatzeko balio die.

4

Zurtoina

5

Sustraiak

4

Landare berri bat sortzeko egitura.

3

Hazia

3

Landareei ugaltzeko balio die, bertan garatzen baitira haziak.

1



## Eta zuk, zer jaten duzu?

Jar ezazu jaki hauen zein zati jaten dugun:

Espinaka	Hostoa
Patata	Tuberkulua
Kakahuetea	Hazia
Azenarioa	Sustraia
Porrua	Erraboila eta hostoak
Lekak	Haziak eta fruitua
Dilistak	Haziak
Gereziak	Fruituak
Marrubiak	Fruituak eta Haziak
Makilgoxoa (regaliza)	Sustraia
Txufa	Tuberkulua
Sagarra	Fruitua
Azalorea	Lorea





# Bisita egin ondoren

## Landareak eta ugalketa

Landareak, gu bezala, izaki bizidunak dira: jaio, haizi, elikatu, arnastu, ugaltu eta hil egiten dira. Modu desberdinean ugaltzeko, gogoratzen al duzu?

Jarri adibideak:



Erraboiletik: tulipana, tipula, baratxuriak,...



Zurtoinaren zati batetik (aldaxka, eskejea): geranioak, hortentsiak, pikondoa, mahatsa



Tuberkuloz: patata, chufa, begonia.



Estoloietatik (marrubiak bezala): iratzeak, clorophytum (zintak), menta




Hazitik: babarrunak, dilistak, pentsamenduak,...



## Jan daitezke

Orain gure herrietako lorategi batzuetan barazkiak ere aurkitzen ditugu apaingarri gisa, eta jatetxe batzuetan loreak plateretan jateko prestatuta, probatu al duzu inoiz lorerik?

Eta barazkirik? Nola gustatzen zaizu jatea?

 Jar itzazu modu desberdin hauetan jaten dituzun barazki mota desberdinak:

Gordinik: ..... **tomatea, letxuga, azenarioa, zain zuriak...** .....

Egosita: ..... **lekak, zerbak, porruak...** .....

Purean: ..... **porruak, kalabazina...** .....

Lurrunetan: ..... **lekak, porruak, zerbak, espinakak...** .....

Frijituta: ..... **zerbaren orri-mamia** .....

Beste moduren bat?

**Konfitatua: tomatea / Gelatinan sartua: azenarioa, tomatea** .....

## Etxean landare bat daukat

Urruti baserritik oroigarri polita eraman duzue etxera: landarea. Orain toki egokia bilatu behar diozue, eta ureztatzea gogoratu, baina ez gehiegi ere, gogoratzen? horrela denbora luzez iraungo dizue.

Lore, landareak eta barazkiak ekoizten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira ezta, abarkak, gazta, ogia, frutak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraien ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitez zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!